Euskal erakunde publikoak eta itzulpengintza: Eusko Legebiltzarra

Mikel Garmendia

Eusko Legebiltzarra sortu zenetik hamar urte bete berri direlarik, egokiera ona dugu berau hamar urteotan Eusko Legebiltzarrean egindako itzulpengintza, gainetik bada ere, aztertzeko.

Eratu zenetik (1980ko martxoak 31), Eusko Legebiltzarrak guztiz bere egin nahi izan du Gernikako Estatutuak agintzen duena, hots: «Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera, eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea».

Ildo honetatik Eusko Legebiltzarrean lehenengo Araudiak (behin-behingo aldia gainditurik) honela dio Aitzin-Idazpuruan: «Euskara eta gaztelania dira Eusko Legebiltzarreko hizkuntza ofizialak, biak aukeran erabili daitezkeela; Legebiltzarraren argitalpenak bi hizkuntzetan egongo dira».

Hirugarren legegintzaldiaren hasieran osoko bilkurei buruzko Bilkura-Egunkarien argitarapenean hutsune handia batetik, eta, bestetik, Aldizkari Ofizialean legebiltzar eta legegintza bizitzari eragiten dieten egitateei buruzko dokumentazio urritasuna nabari dira.

Esan beharrik ez dago 1980.ean Eusko Legebiltzarra eratu zenean oso baliabide urriz hasi ginela ibilian. Eta, jakina, baliabide urritasun hau egitura, antolakuntza eta abarren mailakoa izanik, zer esanik ez itzulpengintzari bagagozkio.

Hasiera hartan hiru itzultzailek, idazkari batek eta itzulpen zerbitzuburu batek osatu genuen itzulpen saila eta itzulpengintzari ekin. Begibistakoa da gaur egun oraindik hizkuntza administratiboa finkatzeke badugu, garai hartan ere finkatzekeago geneukala. Hortaz, osoko bilkurak itzultzeari ekin genion, eragozpenak sortu ahala ebatziz eta emandako irtenbide hauek jasoz halako hitz bilduma osatuz (1985ean argitaratua: *Agintaritza-Aldizkarietatikako Hitz-Bilduma*).

Harrez gero euri asko egin due ta hamarkada honetan ez da, garbizalekeria dela eta ez dela, itzulpengintza motari buruzko eztabaida, ihardunaldi eta antzekorik falta izan.

Nolanahi ere den, eztabaida hori gainditzen hasiak garela esango nuke, eta euskal hizkuntza administratiboa finkatzeko bidea luzea bada ere normaltzen hasia delakoan nago.

Egitate hauen azterketak Itzulpen Zerbitzuak Estatutu eta araudiaren agindua betetzeko zuen baliabide eskasia erakusten du. Horregatik izan du Itzulpen Sailak legegintzaldi honetan bultzada handia, giza zein gauzazko baliabideetan, elebitasunak ezartzen duen lan itzela gauzatu ahal izateko: Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofiziala, Osoko Bilkuren Egunkaria, barne adierazpenak, legegintza etabar elebidun egitea. Honi buruz hartutako neurri nagusienak aipatuko ditugu:

a) Giza baliabideak:

1987: – Itzultzaileen erroldari beste bi erantsi zitzaizkion.

1988: – Urtean zehar beste bi itzultzaile sartu ziren erroldan.

– Lau itzultzaile akuratu ziren aldibaterako atzeratutako bilkura-egunkariak egunera jartzeko.

b) Baliabide materialeak:

- Testuen tratamendurako pantailak ezarri ziren itzultzaile bakoitzak bere terminala duelarik.

d) Baliabide osagarriak:

- Lehiaketa bidez Legebiltzarraren zerbitzuetatik kanpoko itzultzaile talde bati bigarren legegintzaldiko itzuli gabeko bilkura-egunkariak eman zitzaizkion itzultzeko.

Gaur egungo egoera eta duela hamar urtekoa alderatuz gero, argi eta garbi dago egoera biziki hobetu dela eta hirugarren legegintzaldiaren hasieran emandako bultzadak berebiziko garrantzia izan duela aurrera egite eta hobetze honetan.

Dena den, Eusko Legebiltzarra ez da (ez genuke nahi bederen) euskal administrazio-itzulpengintzaren mundutik at bizi eta mundu honek dituen arazo berberak soma daitezke: terminologi batasunik eza, sintaxi arazoak, etabar luze bat.

Beraz, ikusi dugunez baliabide materialei dagokienez aurrerapauso handiak egin direla esan behar. Bada, haatik, premia handiz egin beharreko beste aurrerapausurik: zehazki esatearren, idatzizko itzulpengintzari eman zaion bultzada behar du Eusko Legebiltzarrean interpretaritzak. Iragan hamar urteotan inongo prestakuntzarik gabe ihardun dugu aldi bereko itzulpengintzan ahal izan dugun bezala konpondu garelarik. Egina dugu jadanik prestakuntza hori jasotzeko eskabidea eta laster batetan erantzungo digutelakoan gaude.

Prestakuntzarik gabe ihardun izan honek bi alderd ditu, noski: prestakuntzarik eza eta ihardun izana. Ihardun izanak esperientzia ematen dio interpretariari, baina prestakuntzarik ezaz ihardun izanak hainbat arrisku dakar bere baitan: zenbait bizio hartzea (makinaz idazten bere kasa ikasten duenak bezala), errekurtsorik eza, etab.

Bestalde, hizlariak, parlamentariak, ez daude jabetuta, edo, hobeki esanda, ez ditugu ongi ohitu. Esan nahi dut, askotan gertatu dela parlamentari batek bere mintzaldia idatzita ekarri eta aldez aurretik interpretariari eskuratu gabe izugarrizko abiadan irakurtzea.

Jakina, arazo hauek guztiak araututa dituzte hizkuntza normalduago duten beste herrialdeek, eta gure kasuan ere araupeketa horren premian gaude.

Esan gabe doa, prestakuntza eta interpretaritzari buruzko araudia etabar behar-beharrezkoak baditugu, badugu horiek baino lehenago eman beharreko pausurik: egundaino nahasi egin dira interpretaria eta itzultzailea. Gai eztabaidagarria dugu berau, lanpostu horietara heltzeko frogak ez bait dira denak berdinak izan eta aldatuz joan bait dira. Nolanahi ere den, bistan da gauza bat dela interpretaria eta besterik itzultzailea, nahiz eta pertsona berak, derrigorrez ez bada ere, bi eginkizunak bete ditzakeen.

Ondorioz, interpretaritzan iharduteko ezinbestekoa dugula esan behar prestakuntza, eta lehen hortarako aukerarik ez bagenuen, gaur egun hor dugu, besteak beste, EIZIEren interpretaritza batzordea arazo guzti hauek planteiatzeko, interpretarien prestakuntza eta trebakuntza bideratzeko eta esperientziak elkar trukatuz interpretaritza garatzeko.

Legebiltzarreko mintzaldi transkribatuen itzulpena

Beste gai batera igaroz, laburki zehaztearren, epaiketa, diputatuen kongresu eta antzekoetan aretoaren erdikaldean makinaz idazten duen estenotipistak transkribatu ohi dituen mintzaldi eta diskurtsoez arituko gara orain. Beste hainbat erakundetan, hala nola udaletan, etab., ez da transkribapenik egiten, izandako mintzaldi edo interbentzioen laburpen modukoa baizik. Beste batzutan, estenotipistaren lana grabagailu batek egiten du besterik gabe, jarraian erredaktoreek beharrezko zuzenketak egin ondoren grabaturiko zinta hauek papereratzen direlarik dauden-daudenean argitaratzeko, edota hauek itzuli ondoren argitarapen elebiduna ateratzeko.

Parekotasuna begibistakoa da. Esan nahi dut, transkribatutako testuaren itzulpen idatziaren parean aldi bereko deituriko itzulpena jarri genezakeen bezalaxe, halako hizkuntzan egindako diskurtso baten idatzizko laburpenaren parean esan osteko itzulpena jar genezakeela mintza mailan:

a) Aldi bereko itzulpena	Transkribaturiko testuaren itzulpena
b) Esan osteko itzulpena	Idatzizko itzulpen laburtua

Aldea nabarmena dugu, lehenengo kasuan hitzez-hitzeko itzulpena egiten ez bada ere esandako guztia itzultzen bait da, eta bigarrenean, aldiz, ahal den heinean, jatorrizko diskurtsoan emandako ideia nagusienak itzultzen bait dira. Honako konparaketa xelebre samarra gerta badaiteke ere a) eta b) kasuak bereizten lagunduko digulakoan nago, hots: koka gaitezen futbol partidu baten kontestuan. Aldi bereko itzulpena arbitro jaunak egingo luke eta transkribatutako testuaren itzulpena mobiolatik aterako genuke. Esan osteko itzulpena komentaristak egingo luke zuzenean, eta idatzizko itzulpen laburtua egunkarietan irakurriko genuke astelehen goizean.

Idazlan honek a) kasua aztertzen eta zenbait ondorio ateratzen saiatuko gara, erreferentzia gisa Eusko Legebiltzarrak argitaratzen duen Bilkura-Egunkaria izango dugularik.

Hona a) kasuko transkribatutako testu baten itzulpena:

De todas maneras, efectivamente, quiero considerar, y he considerado con otros grupos políticos, pues, el esfuerzo que ha habido en este sentido; que se ha llegado a esa solución de esos 750 millones que, aunque realmente son insuficientes, pues van a posibilitar por lo menos, aunque sea a nivel de atención o aunque sea a nivel, bueno, de un simbolismo real, cómo se debe orientar también el próximo Presupuesto del año 82, y también, pues, las mismas variaciones, y en algunos casos de cierta entidad, que han sufrido los presentes Presupuestos.

Gisa guztiz, izan ere, alde honetan egindako ahalegina nahi dut aintzat hartu, eta hala egin dut beste zenbait politika-talderekin; 750 miloi horien konponbidera heldu dela, miloi horiek, zinez urriak badira ere, besterik ez bada, arduratzen aldetik behintzat edo egiazko irudikatze aldetik behintzat, 82. urteko hurrengo Diruegitamua ere nola bideratu beharra dagoen bederen erraztuko bait dute; eta orobat, oraingo Aurrekontuok izan dituzten aldaketak berak, zenbaitetan handi samarrak direnak. (*)

(*) Bi testuok Eusko Legebiltzarrak argitaratzen dituen Bilkura-Egunkarietatik hartuak dira.

Ezin dugu inolaz ere ahantz itzuli beharreko testua idatziz ematen bazaigu ere transkripzio hutsa dugula, hau da, hor esandakoak ahoz esanak direla. Honek baditu bere ondorioak. Hizlaria oratorian oso trebatua izan ezik, hizkera hori ez da sekulan patxadaz pentsatu ondoren maila logiko-gramatikal handiko testuetakoa bezain landua izango. Hizkera azkarra, bapatekoa eta zenbaitetan traketsa ere aurkituko dugu honelakoetan. Honen erakusgarri ditugu mintzaldi horietan erabiltzen diren hainbat eta hainbat «muletilla» eta antzeko askotan sobran bait daude, hala nola bueno, *en definitiva, pues, efectivamente*... Hauek, gehienetan, hutsuneak betetzeko besterik ez dira eta, jakina, euskaraz ere badugu horrelakorik. Arazoa, alabaina, gaztelerazko «muletilla» horiek itzultzeko euskarazko baliokideak topatzean datza. Gaztelerazko *pues* euskaraz bada esaten dugu, eta erruz edo maizegi gainera. Efectivamente itzultzeko, aldiz, kontestuari begiratu behar: *izan ere, egia da, hain zuzen*... Euskaraz *bueno* esateko nola jokatu? *Beno* jartzea ez al da artifizialegi gertatzen? Ez al da, maila kolokialean bada ere, euskaraz ere *bueno* esaten?

Azken finean arazo guzti hauen zergatia euskal oratoria sendo baten tradizio eza genuke. Edota, are soilago: euskal hizlariek gaztelerazko eskema logiko-gramatikalak darabiltzate euskarazko diskurtsoak egiteko. Hona honen erakusgarri oraintsuko euskarazko interbentzio bat:

> Beraz, zai gelditzen gara itaun honen erantzunari, eta, edozein kasutan eskatzen diogu Sailburu jaunari arreta berezi bat eskaintzea gai honi, kontutan izanik alde batetik 300 pertsonaren etorkizuna ikusten dugula, nolabait, zailduta, eta beste alde batetik Arabako nekazaritzan erremolatxa alorrak daukan garrantzia. Eskerrik asko. (*)

Testu honen itzulpena hitzez-hitz eman genezake gaztelerazz, hizkuntza honen ordena berbera eta baita zenbait espresio-kalku ere; hala ere, badirudi egokiago litzatekeela en *cualquier caso* euskaraz emateko *nolanahi ere den* edota antzekoez baliatzea *edozein kasutan* jartzea baino.

Bestalde, aipatu testuko zai gelditzen gara itaun honen erantzunari ez genuke dudarik gabe normalean honela esango.

Dena dela, oso kontutan izan behar dugu mintzaldien transkribapenak ditugula eta ezin zaindu, hortaz, aldez aurretik idatzirik prestaturiko testuek izan ohi duten logikotasuna, gramatikaltasuna, anakolutorik eza, etab.

Beraz, maila honetan euskarak gaztelerak dituen zailtasun berberak azalduko lizkiguke.

Arazoa, ordea, areagokoa dugu: inork halako hizlarik halako bilkuratan zer-nolako diskurtso, erreplika edo dena delakoa xeheki jakin nahi izanez gero aski ote transkribatutako mintzaldi haren itzulpena irakurtzea? Esango nuke zer esan zuen baietz, hori jakingo genukeela; ez, alabaina, nola, zer espresio-moduz, doinuz, etab.

Bestalde, hor dugu elebitasunari dagokionez askoz ere aurreratuagoa dagoen Kataluniaren kasua. Han ere argitaratzen bait dituzte, Valencian eta Galizan bezalaxe, bilkura-egunkariak, baina ez hitzez-hitz itzuliak. Han transkripzio hutsa argitaratzen dute, beharrezko zuzenketak egin ondoren, noski. Kontua begibistakoa da: gazteleraz dakien batek oso erraz aditzen ditu katalaneraz, balentzieraz edo gallegoz egindako mintzaldiak. Euskaraz egindakoez, aldiz, ezin honelakorik esan.

Irtenbide ideala euskal politikari guztiek euskaraz ikastea litzateke, jakina denez. Bitartean hona beste irtenbide posible bat: Katalunian, Valencian eta Galizan bezala transkribapen hutsa argitaratu eta euskarazko mintzaldi urrien laburpen gisakoa eman, ideien itzulpena esaten dena, alegia.

SINTESIS

La traducción en las instituciones vascas: el Parlamento Vasco

El Parlamento Vasco, desde su constitución hace ahora diez años, tiene asumido el Estatuto de Gernika, en el que se sanciona la oficialidad del euskara y del castellano. En ese sentido, el primer reglamento del Parlamento Vasco dispuso que las publicaciones realizadas por esta institución fueran bilingües.

La escasez inicial de recursos, evidentemente, afectó a la labor de traducción. El departamento de traducción estaba formado en un principio por tres traductores, un secretario y el jefe del servicio, y tuvo que enfrentarse, en aquel entonces, al problema de la falta de consolidación del uso del euskara en el lenguaje administrativo.

Durante este último período legislativo el departamento de traducción ha recibido un gran impulso, en recursos humanos y materiales. Por una parte, cuatro nuevos traductores han pasado a formar parte de la plantila, mientras que otras cuatro personas más han sido contratadas temporalmente para la traducción de los diarios de sesiones atrasados. Asimismo, se ha provisto a cada traductor de un procesador de textos. Finalmente, por medio de un concurso público, se ha adjudicado a un grupo de traductores externo la traducción de los diarios de sesiones del segundo período legislativo que se encontraban aún sin traducir.

Es evidente que la situación ha mejorado sustancialmente, si bien el Parlamento Vasco no es ajeno a los problemas que aún hoy en día afectan a la traducción de textos administrativos al euskara: falta de unificación terminológica, problemas de sintaxis, etc.

Por último, se observa la necesidad de dar a la interpretación el mismo impulso que se ha dado a la traducción, ya que hasta el momento dicha labor de interpretación ha sido realizada sin ningún tipo de preparación previa, con los riesgos que ello lleva consigo. Una y otra son, sin duda, distintas labores, que exigen distinta preparación.

Traducción de intervenciones orales

La traducción de intervenciones orales transcritas tras ser registradas por estenotipia o registradora suelen realizarse de dos maneras diferentes: en ocasiones las intervenciones se traducen literalmente, mientras que, en otros casos, la traducción queda reducida a ofrecer una síntesis de las intervenciones.

En el caso del Diario de Sesiones del Parlamento Vasco, junto a la transcripción completa de las intervenciones se publica la traducción literal de las mismas. Las mencionadas transcripciones de las intervenciones orales no presentan, evidente-

mente, el nivel lógico-gramatical del texto escrito; se refleja en ellas un lenguaje improvisado, espontáneo y, a veces, incluso torpe, cargado de muletillas. La inexistencia de una tradición oratoria consolidada en euskara plantea dificultades a la hora de encontrar los equivalentes de esos elementos. Se constata además, en las intervenciones en euskara, que los oradores se rigen a menudo por esquemas lógico-gramaticales más propios del castellano que del euskara.

En Cataluña, al igual que en Valencia y Galicia, los diarios de sesiones recogen únicamente la transcripción de las intervenciones. A diferencia de lo que ocurre con el euskara, las intervenciones realizadas en cualquiera de las lenguas propias de esas comunidades son fácilmente comprensibles para cualquier persona con dominio del castellano.

Si bien la solución ideal sería que todos los políticos vascos aprendieran el euskara, una solución transitoria podría ser publicar únicamente las transcripciones de las intervenciones, acompañadas, en el caso de las realizadas en euskara, por su síntesis en castellano.

ABSTRACT

Translation in Basque institutions: the Basque Parliament

The Basque Parliament, since its constitution ten years ago, has adopted the Statutes of Gernika, in which the official nature of Basque and Spanish is highlighted. In this sense, the first ruling of the Basque Parliament declared that publications made by that institution were to be bilingual.

The lack of initial resources had a clear effect on the work of translators. The translation department was formed, initially, by three translators, one secretary and the Head of the Service, and at that time had to face the problem of a lack of consolidation in the use of Basque in government language.

During the last legislature, the translation department has received a great deal of backing, both in terms of resources and materials. On the one hand, four new translators have joined the staff, while another four persons have been given temporary contracts for the translation of the existing backlog of Reports of Proceedings. Likewise, all the translators have been provided with a word processor. Finally, by public tender, the translation of the Reports of Proceedings corresponding to the second legislature, which had not been translated, were awarded to an outside group of translators.

It is clear that the situation has improved substantially, although the Basque parliament is not free of the problems which even today affect the translation of government texts into Basque: a lack of a standardisation of terminology, syntactic problems, etc.

Lastly, there is a clear need to give interpreting the same stimulus that has been given to translation, as until now this work has been carried out without any kind of previous training, with the risks that this involves. They are, without doubt, different types of work, which require different training.